

UDALAK 2013ko MARTXOAREN 26EAN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

M^a Jesus Egido Moreno and.

Jose Antonio Sanchez Almaraz jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Maria Otaegi Velez and.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

2013ko martxoaren 26an ohiko osoko bilkuraren bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Pello Odriozola Zubizarreta idazkariordea.

KONTUHARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIORDEA:

Pello Odriozola Zubizarreta jn.

1.- AKTA ONARTZEA: 2013-02-26. - 2013ko otsailaren 26an egindako bileraren akta ez da aurkeztu.

2.- 2013KO OTSAILAREN 21ETIK 2013KO MARTXOAREN 21ERA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. – 2013ko otsailaren 21etik 2013ko martxoaren 21era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da:

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.

* Politika Sozialeko delegatu jn.

3.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK EGITEAGATIK 2013/2014 IKASTURTEAN ORDAINDU BEHARREKO TASEN ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA FISKALAK ALDATZEKO PROPOSAMENA: "HERNANI" MUSIKA ESKOLA ETA KANTUZ MUSIKA ESKOLA; KULTURA ARLOKO IKASTAROAK; UDAL EUSKALTEGIA; KIROLDEGIKO ZERBITZUAK; HAUR ESKOLAKO JANGELA ETA JABEKUNTZA ESKOLA. – Luis Intxauspe Alkateak ondorengo adierazi du: hemen erabakitzen direnak ikasturteari dagozkion tasak dira, hau da, Musika Eskola, Haurreskolako jangelako tasak, Biteri Kultur Etxeko ikastaroenak. Polikiroldegiko ikastaroenak, Udal Euskaltegiarenak,... ikasturteko tasak direnak. Tasen planteamentua egiterakoan irizpide diferenteak erabili ditugu ikastaro edo zerbitzuaren arabera, denak zehazki azaldu beharrean, orokorrean esan planteatzen dena euskera ikasteko ikasturteko matrikularen tasa iazko berdina mantentzea eta horren arrazoia da, guretzat, askotan adierazi dugun bezala, hizkuntzaren gaia, euskararen gaia, ezagutza eta erabilera oso inportantea da, beraz euskara ikastera animatzen diren herritarren kasuan matrikula prezioa behintzat merketu ez dugu egingo, horretarako badaude beka sistema eta bestelako dirulaguntzak, baina tasa hori mantentzea eta ez garestitzea proposatzen da.

Orokorrean bestelako zerbitzu gehienetan KPIaren igoera da planteatzen dena, pasa den ikasturtetik ikasturte honetarako eta Biteri Kultur Etxeko ikastaroetan planteatzen dena da pasa den ikasturtetik ikasturte honetara BEZ zergaren igoera bat izan dugu, hori konpentsatzeko igoera bat, matrikularen prezioa garestitzea baino gehiago da BEZa konpentsatzeko planteatzen den igoera eta gero bai Musika Eskolan eta bai Polikiroldegian, hor azterketa askoz ere sakonagoa egin da ikastaro bakoitzean eta eskaintzen den ikastaro bakoitza nori zuzendua dagoen, haurrei edo helduei, talde haundi edo txikietan egiten den, eskaintza orokorra den edo zehatza eta berezia den, eta horren arabera planteamendu diferenteak egin dira eta tasen ajuste bat egin da baina ez da baremo berdina aplikatu ikastaro guztietan, ez Musika Eskolan eta ez Polikiroldegian.

Norbaitek interesa badu azalpen zehatzagoa eman daiteke, baina egin dena hori da, aztertu ze ikastaro mota den, nori zuzendua dagoen, ze koste duen, ze defizit sortzen duen eta horren arabera planteatu da baremazio bat.

Planteatzen da hurrengo ikasturtean tasa guzti horiek ordaintzeko aukera berri bat, hiru zatitan ordaintzearena, orain arte ez zegoen hiru zatitan ordaintzeko aukera eta gaur egun hainbat familian, Musika Eskolan kide bat baino gehiago daude, edo Polikiroldegiko ikastaroetan ere, erreztasunak emateari begira hiru zatitan ordaintzeko epe horiek.

Alkateak 2013ko martxoaren 13ko proposamena aztertu da. Aurkeztutako proposamenean zehazten da atal bakoitzaren igoera

Kontu-hartzaileak 2013ko martxoaren 6an egindako txosten tekniko-ekonomikoa aztertu da,

Aztertu da Ogasun eta Ondare – Kontuotarako Batzorde bereziak 2013ko martxoaren 18an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 8 (BILDU).
- * Abstentzioak: 7 (3 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIALISTAK ETA 1 H1!).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- A) Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak egiteagatik 2013/2014 ikasturtean ordaindu beharreko Tasen Ordenantza Fiskala aldatzeko proposamena: "Hernani" Musika Eskola eta Kantuz Musika Eskola; Kultura arloko Ikastaroak; Udal Euskaltegia; Kiroldegiko zerbitzuak:

Lehenengo: Zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik 2013/2014 ikasturtean ordaindu beharreko tasen ordenantza fiskalaren eranskin hauen aldaketa onartzea:

11.- “HERNANI” MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

Tasak berriak, eta Hernanin erroldatu gabeentzat zenbateko horien gainean %20aren igoera onartzeko proposamena egiten da. Horrekin batera, tasaren zenbatekoaren ordainketa hiru alditan egitea proposatzen da.

2013/2014 IKASTURTEKO TASAK:

| Maila | Irakasgaia | Hernanin erroldatuek | Hernanin erroldatu gabeek |
|-------|-----------------------------------|----------------------|---------------------------|
| 1 | Hastapena | 201 | 241,2 |
| 2 | Soinu-tresna (txalaparta ezik) | 300 | 360 |
| | Txalaparta | 150 | 180 |
| | Talde instrumentala edo abesbatza | 60 | 72 |
| | panderoa | 60 | 72 |
| | Lengoaia Musikala | 60 | 72 |
| | Musika Hezkuntza | 30 | 36 |
| 3 | Soinu-tresna | 360 | 432 |
| | txalaparta | 195 | 234 |
| | Talde instrumentala edo abesbatza | 75 | 90 |
| | Musikaren teknika lagungarriak | 360 | 432 |
| 4 | Soinu-tresna | 420 | 504 |
| | Talde instrumentala edo abesbatza | 75 | 90 |
| | Musikaren teknika lagungarriak | 360 | 432 |

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %34a interesatuak esaten duen kontu korrontetik hartuko zaio, matrikula egin aurretik.
- %33a kontu korrante beretik, abenduaren hasieran.
- beste %33a kontu korrante beretik, martxoaren hasieran

2. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute.

3. Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

4.- Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

5.- Onura fiskalak: Tasaren Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

11 b “KANTUZ” MUSIKA ESKOLA

“KANTUZ” MUSIKA ESKOLA. 2012/13 IKASTURTEKO TASAK:

| | |
|-----------|---------|
| Matrikula | 217,7 € |
|-----------|---------|

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %34a interesatuak esaten duen kontu korrontetik hartuko zaio, matrikula egin aurretik.
- %33a kontu korrante beretik, abenduaren hasieran.
- beste %33a kontu korrante beretik, martxoaren hasieran

2. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute.

3.- Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

4. Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

5.- Onura fiskalak: Tasaren Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

12.KULTURA SAILEKO IKASTAROAK

%13ko igoera eta tasaren zenbatekoa hiru zatitan ordaintzea proposatzen da

2013/2014 ikasturtea

| 1.- Hernanin bizi direnentzat: | € |
|--|-----|
| HELDUAK | |
| Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 4 ordu) | 262 |
| Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 3 ordu) | 197 |
| Urria/ekaina (egun 1 astean, 3 ordu) | 197 |
| Urria/ekaina (egun 1 astean, 2,5 ordu) | 164 |
| Urria/ekaina(egun 1 astean, 2 ordu) | 129 |
| Urria/ekaina(egun 1 astean, 1,5 ordu) | 96 |
| - 72 ordukoak | 140 |
| - 60 ordukoak | 116 |
| - 40 ordukoak | 77 |
| - 15 eta 30 ordu bitartekoak | 60 |
| - 15 ordu baino gutxiagokoak | 33 |
| HAURRAK (14 urte bitarte) | |
| -Urria/maiatza (3 ordu astean) | 127 |
| -Urria/maiatza (2 ordu astean) | 86 |

| | |
|-------------------------------------|----|
| -Urria/maiatza (1, 5 ordu astean) | 64 |
| -15 eta 30 ordu bitartekoak | 38 |

2.- Hernanin bizi ez diren ikasleek honako kopuru hauek ordainduko dituzte matrikularengatik.

HELDUAK

| | |
|--|-----|
| Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 4 ordu) | 342 |
| Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 3 ordu) | 260 |
| Urria/ekaina (egun 1 astean, 3 ordu) | 260 |
| Urria/ekaina (egun 1 astean, 2,5 ordu) | 216 |
| Urria/ekaina (egun 1 astean, 2 ordu) | 172 |
| Urria/ekaina (egun 1 astean, 1,5 ordu) | 125 |
| - 72 ordukoak | 181 |
| - 60 ordukoak | 153 |
| - 40 ordukoak | 103 |
| - 15 eta 30 ordu bitartekoak | 76 |
| - 15 ordu baino gutxiagokoak | 40 |

HAURRAK (14 urte bitarte)

| | |
|-------------------------------------|-----|
| -Urria/maiatza (3 ordu astean) | 164 |
| -Urria/maiatza (2 ordu astean) | 111 |
| -Urria/maiatza (1, 5 ordu astean) | 85 |
| -15 eta 30 ordu bitartekoak | 50 |

Tarifa aplikatzeko arauak:

1.- Ordainketa ondorengo era honetan egin daiteke:

- ordainketa bakarra matrikula egin aurretik, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
- edota, hiru ordainketa:
 - a) ordainketa osoaren %34a matrikula egin aurretik, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
 - b) beste %33a abenduaren hasieran, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
 - c) Beste %33a martxoaren hasieran, interesatuak ematen duen kontu korrontean.

2.- Ikastaroa hasiz gero ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien tarifa osoa ordaindu beharko dute. Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

3.- Ikasturte hasieran matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

3.1 Ikasleren bat lehendabiziko astean lanean hasten bada, baldin eta lanean hasi den enpresaren egiaztagiraren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).

3.2 Lehendabiziko astean ikasleak gaixotasunen bat dela eta baja ematen badu, aurreko puntuan egindako salbuespen bera egingo da, baina medikuaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko du.

3.3 Ikasleak aukeratutako ordutegian taldea osatuko ez balitz.

4.- Ikaslea ikastaroa beranduago hasi beharrean badago —bere errua ez den arrazoiren bat tarteko—, dagokion matrikula kopuruaren zati proportzionala ordainduko du.

5.- Onura fiskalak: ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

13.- UDAL EUSKALTEGIA

2012-2013 ikasturteko zenbatekoak mantentzea eta tasaren ordainketa hiru zatitan egitea proposatzen da
2013/2014 ikasturterako

AURREZ AURREKO IKASTAROAK ETA AUTOIKASKUNTZA

a) Hauek izango dira 2013/2014 ikasturtean aplikatuko diren tarifak:

- Ikastaldi osoak, 2013ko irailtik/urritik 2014ko ekainera arte astelehenetik ostegunera, bi ordu eta erdi egunean, 456,85 €.
- Ikastaldi osoak, 2013ko irailtik/urritik 2014ko ekainera arte, astean 6 ordu: 274.- €.
- Autoikaskuntza ikastaldi osoak, 2013ko iraila/urritik 2014ko ekainera arte: 456,85 € .
- Ikastaldi osoak, 2013ko irailtik/urritik 2014ko ekainera arte astelehenetik ostegunera, bi ordu egunean, 365,50 €.

Beste modulu guztietako kostua 1,43 €/orduko izango da (ikasmateriala barne).

b) Ikasturtea bigarren edo hirugarren hiru hilabetekoan hasten dutenek, epe horri dagokion diru kopurua ordainduko dute.

c) Tarifa aplikatzeko arauak:

- Matrikularen ordainketa honela egingo da:
 1. Matrikula egiteko momentuan 30 € ordainduko dira.
 2. Klaseko lehenengo astean %34a osatzeko falta den kantitatea sartuko da horretarako ezartzen den kontu korrontean.
 3. Ikastaldia hasi eta bi hilabeteko epean gelditzen den %33a sartuko da kontu horretan bertan.
 4. Ikastaldia hasi eta lau hilabeteko epean gelditzen den beste %33a sartuko da kontu horretan bertan.

Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen luzeagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

- Ikasturte hasieran matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

1. Ikasleren bat lehendabiziko astean lanean hasten bada, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).

2. Lehendabiziko astean ikasleak, gaixotasunen bat dela eta, baja ematen badu, aurreko puntuan egindako salbuespen bera egingo da, baina medikuaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko du.
3. Euskaltegiaren funtzionamendutik eratorritako kasuak direla medio, bi kasu hauek:
 - Ikasleak nahi duen ordutegian talderik osatu ez bada eta beste ordutegi batean ezin badu.
 - Ikaslea maila batean hasi ondoren, beste maila batean egotea komeni zaiola konturatu bagara, eta ordutegi horretan dagokion mailako talderik ez badauka edota beste aukerak baztertzeko baditu, ordaindutakoa itzuli egingo zaio.

XEDE BEREZIETARAKO ON-LINE IKASTARO MISTOA

a) Osasun arloko profesionalentzako ikastaro mistoa..

Bi osagai izango ditu ikastaro honek:

1. Sarean egitekoa, 25 ordukoa. Ondoko hauek dira tasak, taldeko ikasle kopuruaren arabera:

| Ikasle kopurua | Tasa ikasleko |
|----------------|---------------|
| 8-16 ikasle | 299,60 € |
| 4-7 ikasle | 375,30€ |
| 2-3 ikasle | 574,55 € |
| 1 ikasle | 1.237,50 € |

2. Aurrez aurrekoa:

- 2.1 2 orduko 6 saio, 12 ordu: 872,15 € taldeko.
- 2.2 5 orduko 6 saio, 30 ordu: 2.227,65€ taldeko

16.- "HERNANIKO UDAL KIROLDEGIKO ZERBITZUAK ERABILTZEA

2013ko ekainaren 1etik aurrera

g) Erabiltzaileentzako zerbitzuak

| | Abonatuak | Abonatu gabekoak |
|-------------------------------------|-----------|------------------|
| Jolas igerilekuak, 18 urtez behekoa | 7,10 | 7,10 |
| Jolas igerilekuak, 18 urtez gorakoa | 4,85 | 4,85 |
| Jolas igerilekuak, 3 urtez behekoa | 2,35 | 2,35 |

d) Kiroldegian abonaturatutakoak eta Astigarragakoak uda garaiko aisialdi eta jolas igerilekuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko gehigarria:

| | |
|--------------|-------|
| Familiarra | 70,00 |
| Banakakoa | 46,30 |
| Adintxikikoa | 30,60 |

e) Udako denboraldiko abonatuak aisialdi eta jolas igerilekuak:

| | |
|------------|--------|
| Familiarra | 139,00 |
|------------|--------|

| | |
|--------------|-------|
| Banakakoa | 91,50 |
| Adintxikikoa | 56,45 |

2013ko irailetik 2014ko abuztura

h) Abonatuentzako ikastaroak:

- hilerokoak

| | |
|---|-------|
| Jaioberrientzako igeriketa, astean 2 egun | 45,20 |
| 3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean 2 egun | 57,60 |
| 3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean 3 egun | 86,40 |
| 3-4 urte bitarteko haurrentzako igeriketa , astean egun 1 | 28,80 |
| 5 urtetik gorako hasiberrientzako igeriketa | 78,95 |
| Hasiberrientzako igeriketa | 75,45 |
| Haurgintza-igeriketa | 44,35 |
| Bizkarrezurra | 44,35 |

- 10 hilabetekoak

| | |
|---|--------|
| Ikastaroak, astean 150 minutu | 276,00 |
| Ikastaroak, astean 100 minutu | 197,10 |
| Ikastaroak, astean 50 minutu | 98,20 |
| Indoor walking-a, Pilatesa, B. training-a,GAP-BOSU, Konbinat. | 340,10 |
| 3. adina | 57,70 |
| Mantentze Igerik. Eta Aqua-gym, astean 150 minutu | 276,00 |
| Mantentze Igerik. Eta Aqua-gym, astean 100 minutu | 206,00 |
| Ur ekintzak eta Igeri eskola, astean 100 minutu | 206,50 |
| Ur ekintzak, astean 50 minutu | 103,20 |

Ikastaro horietako edozeinen iraupena luzatuko balitz, edota jarduera hasteko eguna baino hilabete beranduago hasiko balitz, izena emateko tasagatik ordaindu beharrekoa ikastaro osoagatik ordaindu beharreko tasaren zati proportzionala izango da.

2013ko ekainaren 1etik aurrera

j) Udako jarduerak:

| | |
|--|-------|
| Aerobica, Ziklo indoor eta abar 3 egun | 26,25 |
| Indoor walking-a, pilatesa, body training-a, tenisa 3 egun | 51,00 |
| Indoor walking-a, pilatesa, body training-a, tenisa 2 egun | 34,25 |

m) Tarifak aplikatzeko araua:

1.- Ikastaroetan izena ematea

Ikastaroetan izena ematea era honetara ordaindu behar da:

Hilabeteko ikastaroak :

Kuotaren %100 ordaindu behar da izena ematerakoan. Ordainketak Udalaren kontu korrontean egin behar dira, eta ordainagiriak kiroldogiko bulegoetan aurkeztu behar dira. Ordainketak kreditu-txartelarekin ere egin daitezke.

Iraupen luzeko ikastaroak:

3-4 urtekoentzako igeriketa ikastaroak: Ikastaroaren kuotaren %50, izena ematean; ordainketa Udalaren edozein kontu korrontetan egin eta ordainagiria aurkeztu behar da, edota kreditu-txartelaz egin.

Kuotaren gainerakoa, %50, ikastaroaren bigarren hilean, aurrean aipatu den moduan

Gainerako ikastaroak (iraila-ekaina; urria-ekaina):

Iraupen luzeko ikastaroen kuotak modu hauetan ordain daitezke:

Ordainketa bakarra: kuotaren %100 izena ematean ordainduko da. Ordainketa dagokion zenbatekoa Udalaren kontuetan sartuz egingo da, gero horren ordainagiria aurkeztu beharko delarik, edo kreditu txartelaren bidez.

Izena behin jarduera hasita ematen denean dagokion parte proportzionala ordainduko da, altaren dataren arabera. Horretarako, lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko dira 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Zatikako ordainketa: Oro har, ikastaro guztietarako ordainketa bankuan edo aurrezki kutxan helbideratuz egingo da. Kuota bost zatitan ordainduko da, bakoitza ikastaroaren kuota osoaren %20koa. Lehenengo hiru zatiak abenduaren 31 baino lehen fakturatuko dira eta gainontzeko biak hurrengo urteko martxoaren 31 baino lehen.

Izena behin jarduera hasita ematen denean, kuota zatitu ahal izango da jarduera fakturatzeko geratzen diren zatietan. Zati bakoitzaren zenbatekoa talde osoarentzat ezarrita dagoena izango da, lehenengoa izan ezik, honetan alta-dataren arabera ordainduko baita dagokion zatia, kontuan izanda lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko direla 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Pilates, Indoor-Wolkin, Body-Training, GAP-Bosu, Konbinatu eta honelakoetan, kobrantza jarduerak irauten duen hilabete kopuruan zatituko da, kontuan izanda lehenengo hilabeteko kuota kalkulatzeko hilabete osokotzat hartuko direla 1etik 15era egindako izen-emateak eta hilabete erdikotzat 16tik 31ra egindakoak.

Iraupen luzeko ikastaroetan izena ematea, ordaintzeko aukeratu den bidea edozein izanda ere, ikastaro osorako dela ulertuko da eta, ondorioz, ordainketa-zati guztiak ordaindu behar dira, ikastarora joan ala ez kontuan izan gabe.

Zatiren bat ez ordaintzeak hori kobratzeko espedientea irekitzea ekarriko du. Espedientea irekitzen denetik eta amaitzen den arte, abonatuak eskubide guztiak galduko ditu.

2.- Itzulketak - Bajak

Kiroldegiko abonua: Abonua indargabetzen denean, ez da dirurik itzuli edo konpentsatuko. Abonua indargabetzea Udal Kiroldegiaaren arrazoiz gertatu denean baino ez da itzuliko edo konpentsatuko ordaindutakoa.

Hilabeteko ikastaroak: Behin ikastaroa hasita ezin izango da baja eskatu eta dagokion dirua itzuli.

Izen-ematearen %100 itzuliko da, baja eta itzulketa ikastaroaren hasiera baino lehen istripuagatik edo gaixotasunagatik eskatzen denean, horretarako ziurtagiria aurkeztu beharko da.

Iraupen luzeko ikastaroak: Jarduera hasi eta astebetera ezin izango da eskatu ez bajarik, ez ordaindutako diru kopuruen itzulketarik.

Hala eta guztiz ere, ikastaroetan izena eman dutenek, lehen aipatutako epea igarota eta urte bereko abenduaren 31n egun arte, ikastaroan baja eskatu ahal izango dute idatziz eta hau onetsia edo ezetsia izango da. Kirol Delegatuak erantzuna emango du ebazpenaren bidez, aurkeztutako arrazoiak baloratu eta gero.

Udalak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoa den dokumentazio guztia, baja eskatzearen arrazoiak justifikatzeko.

Ikastaro osoa edo zatia indargabetzea ikastaroa antolatu duenaren arrazoiz gertatzen bada, izena emategatik ordaindutakoa ikastaroa eten denetik gelditzen den denboraren proportzioan itzuliko da.

Bigarren .Erabakia 30 egunez jendaurrean jartzea, erreklamazioak edo oharra egin ahal izateko.

Hirugarren.- Hartutako erabakia jendaurrean egondako arauzko epean inolako erreklamazio edo oharrik egiten ez bada behin betiko bihurtuko da.

Laugarren.- Alkateari almena ematea erabakiaren testua eta tributuak arautzen dituzten ordenantzak baterabiltzeko, udalak onartutako aldaketa guztiak sartuz.

B) Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak egiteagatik 2013/2014 ikasturtean ordaindu beharreko Prezio Publikoen Ordenantza Fiskala aldatzeko proposamena:

Lehenengo: Zerbitzuak eskaintzeko edo jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzeko ordenantzan 3 eta 4. eranskinen prezio publikoak aldatzea, ondoko testua delarik

3.- HAUR ESKOLAKO JANGELA.

1.- Proposamena: ikasturte honetan tarifak %2,4 igotzea

AZALPENA

UMEENTZAKO TARIFAK

| | <i>EUROAK</i> |
|---|---------------|
| Bazkariaren tarifa, erabiltzaile eta hileko | 102,95 |
| Askariaren tarifa, erabiltzaile eta hileko | 22,65 |
| Bazkari bakoitzak | 6,3 |
| Askari bakoitzak | 1,95 |

HELDUENTZAKO TARIFAK

| | |
|---|------|
| Bazkariaren tarifa, erabiltzaile eta hileko | 124 |
| Bazkari bakoitza | 7,45 |

11/1989 Foru Arauaren 47. artikulua 2. idatz zatia kontuan hartuta, umeen hileko tarifei hainbat murrizpen aplika dakizkioke, familia unitatearen diru-sarreraren arabera, ondoko taula honetan azaltzen den moduan:

| Familia unitateari dagozkion urteko diru-sarrerak (per capita) Ingresos anuales correspondientes a la unidad familiar (per capita) | Reducción Murrizketa % | Tarifa Comida Bazkari-tarifa € | Tarifa Merienda Askari-tarifa € |
|--|------------------------|--------------------------------------|---------------------------------------|
| 0,01€ eta 14.324,08 € arteko diru-sarrerak | 100 | 0 | 0 |

| | | | |
|---|----|--------|-------|
| Ingresos correspondientes entre 0,01 € y 14.324,08 €. | | | |
| 14.324,09 eta 17.189,51 € arteko diru-sarrerak | | | |
| Ingresos correspondientes entre 14.324,09 y 17.189,51 € | 90 | 10,30 | 2,30 |
| 17.189,52 eta 20.627,62 € arteko diru-sarrerak | | | |
| Ingresos correspondientes entre 17.189,52 y 20.627,62 € | 80 | 20,60 | 4,55 |
| 20.627,62 eta 24.734,19 € arteko diru-sarrerak | | | |
| Ingresos correspondientes entre 20.627,62 y 24.734,19 | 40 | 61,80 | 13,60 |
| 24.734,19 eta 35.643,60 € arteko diru-sarrerak | | | |
| Ingresos correspondientes entre 24.734,19 y 35.643,60 € | 10 | 92,70 | 20,40 |
| 35.643,61 baino gehiago | | | |
| Ingresos superiores a 35.643,61 € | 0 | 102,95 | 22,65 |

Murrizpenak aplikatzeko baldintzak:

- 1.- Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea.
- 2.- Tasaren subjektu pasiboak, haur eskola zerbitzuaren haur onuradunen guraso, tutore edo legezko ordezkariak, Hernanin errolatuak egotea.
- 3.- Aurkeztu beharreko agiriak:
 - 3.1 Eskaera orria eta bizikidetzatza unitateko kide guztien diru-sarrera eta ondasunen zinpeko aitortpena.
 - 3.2 Familia unitatearen diru-sarreraren frogagiriak:
 - a) Pertsona fisikoaren errentaren gaineko azken ekitaldiko zerga-aitorpenaren fotokopia edo, aitortpenik egin beharrik ez bada, Foru Ogasunaren egiaztatzea, egin beharrik ez dela adierazten duena.
 - b) Errenta aitortpena egin beharrik ez bada, enpresaren ziurtagiria (10-T), edota langabeziagatik edo bestelako kontzeptuengatik jasotzen diren prestazioen ziurtagiriak
 - c) Ekonomi jardueretatik datozen diru-sarreraren kasuan, errenta aitortpenarekin batera dagokion eranskina aurkeztu behar da (PFEZaren 109 inprimakia, 6 edo 5 zk.), jarduera etekinak zehazten dituen, eta ondarearen eranskina ere bai (PFEZaren 109 inprimakia, 7 zk).
 - d) Interesgarri jotako beste edozein agiri.

Tarifaren gaineko murrizpena aplikatze aldera PFEZaren aitortpena edo, INSS eta INEMeko datuak ohartaraziz, diru-sarrerak egiaztatze bestelako agiririk aurkezten ez duten interesatuek ez dute inongo murrizpenik izango.
- 4.- Langile autonomoek, diru-sarreraren arabera tarifaren zein murrizpena aplikatu behar zaien kalkulatzeko, gutxieneko diru-sarrera maila bat errekonozituko zaie, 21.205,20 eta 25.426,75 €ko tarteari dagokiona izan daitekeena.
- 5.- Ezingo dute murrizpenik lortu beren ondareari buruz ondorengo arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek:
 - a) Ondasun higiezinak:

Elkarbizitza edo familia unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar ehun eta berrogeita hamar mila euroko muga (150.000 €) Familia ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 165.000€

Famili ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 165.000 €. Ondare balio hau kontuan hartu behar bada bakarrik aplikatuko da artikuluko honen 2c) apartatuak ezarritako hoberia, hau da, familia ugarietako hobariak eta diru-sarreraren taula.

Famili unitateak ezin du hiri ondasun baten baino gehiagoren jabe izan (jabetza soila, gozamen-eskubidea, barne). Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:

1. Ondasunak badira ohiko etxebizitza eta eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garaje bat edota trasteleku bat, edo etxebizitzatik hurbil dagoen garaje edota trasteleku bakarra.
2. Ondasunak badira ohiko etxebizitza (garaje eta trasteleku bana) eta lokal komertzial bat, eta lokal honetan elkarbizitza edo famili unitatearen kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen badu. Kasu honetan interesatuak behar bezala frogatu beharko du bere jarduera ekonomikoa garatzeko lokala dela.

Lokala biltegia bada, interesatua langile autonomia bada eta ekonomi jardueren gaineko zergan horrela alta emanda baldin badauka, ez da kontuan hartuko lokal hau.

3. Ondasunak bi etxebizitza badira, bata ohikoa izanda, eta besteari buruz jabetza soila edukita, eta gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere) eta 150.000 €ko muga gainditzen ez bada, edota 165.000 €koa familia ugarien kasuan, ez da kontuan hartuko bigarren etxebizitza.

b) Ondare higigarriak:

b-1) Balore higigarriak:

- 1) Familia unitateko ondarea osatzen duten tituluak, baloreak, inbertsio-fondoetako partaidetzak, diru erraz bihur daitezkeen kreditu-eskubideak eta familiako edozein kideren esku dagoen banku-gordailuetako eskudirua, horien zenbatekoak hogeita lau mila euroko (24.000 €) muga gainditzen duenean. Edonola ere, aztertu beharko da ea famili ondarearen osagai bakarra diren ala lanetik botatzeagatik emandako kalte-ordainetik datozen.
- 2) Errenta aldakorreko tituluak burtsan duten kotizazioaren arabera baloratuko dira. Ez badira kotizatzen ari, berriz, horien kontabilitate balioa hartuko da kontuan.

b-2) Ibilgailuak:

- 1.- Famili unitatearen kide bakar bat ere ezin da izan 13,99 zaldi fiskal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe.

Hauek ez dira kontuan hartuko:

- Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, hala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.
- %65eko edo gehiagoko elbarritasun maila duten pertsonen gidatzeko egokitutako ibilgailuak, elbarriarenak berarenak baldin badira.
- Aulki gurpilduneko elbarritasuna duten pertsonak eramateko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenean edo egokitu ondoren.

- 2.- Dena den, famili unitateak ezin du ibilgailu baten baino gehiagoren jabe izan, aurreko idatz zatian sartutakoak barne. Hala ere, ez dira kontuan hartuko kamioiak, traktoreak, trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, eta autobusak.

6.- Ondare-osagaien pilaketa.

Familia unitateak aurreko ataletan azaldutako ondare-osagai horietatik hainbat dituenean, dagokion mugarekiko ondare-osagai bakoitzaren balioak hartzen duen ehuneko kalkulatuko da. Horrenbestez, eskatutako salbuespen, hobari edo murrizpena ez da emango ehuneko horien batura ehun baino gehiago bada.

7.- Merkatal, industri eta lanbide-jarduerak.

Era berean, ez da eskaera hori onartuko familia unitateko kide kontagarriren bat edozein jarduera ekonomikoren jabe izanik, dagokion ekitaldian aipatu jarduerari egotzitako fakturazio-bolumenak ehun eta berrogeita hamabost mila euroko (150.000 €) muga gainditzen badu.

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1.- Zerbitzua eskatzen duena da prezio publiko hau ordaintzera beharturik dagoena.

2.- Zerbitzua lehen hilabetetik erabiltzen duten onuradunek hamaika ordainketa oso egin beharko dituzte, eta ordaindu beharreko kopurua diru-sarreraren taula aplikatzearen ondorioz kalkulatuko da. Ordainketak hilerokoak izango dira, zerbitzua emateko urtero onartzen den eskola egutegiaren arabera.

Salbuespena: jangelari utzi beharra dakarren ezinbesteko arrazoia, eta behar bezala justifikatua denean, Udalak erabakiko du. Oporretan egotea ez da ezinbesteko arrazoia. Hilabete hasi baino lehen jakinarazi eta justifikatu beharko da.

3.- Edozein aldaketa (jangela zerbitzua eskatu, ordutegia aldatu, baja eman) idatziz egin beharko da, udaletxeak horretarako dituen eskabide orriak beteaz eta behar bezala justifikatuz. Aldaketa hauek eskatzeko azken eguna hilabete bakoitzaren 25a izango da.

4.- Egokitze kasuan, egokitzapena 2 astekoa denez, epe hau ez da ordainaraziko. Epe hau bukatu ondoren denei zerbitzua ordaintzeko eskatuko zaie.

5.- Jangelako umeen eta helduen kuotak, lan arazoetan eta haurra gaixotzen den kasuetan, murriztu ahal izateko, medikuak, horretarako dagoen mediku orria bete beharra du eta orri hori entregatua izan beharko da. Medikuaren eskaera orri hauetariko bakoitzak aste baterako soilik balio du eta beraz, haurra gaixo dagoen aste bakoitzeko orri bat entregatu beharko da. Murrizpena %25ekoa izango da haurra gutxienez 5 egun jangela erabili gabe egon bada. %50ekoa, bi astez joan ez bada eta %75ekoa hiru astez joan ez bada. Medikuaren ziurtagiri hauek, hurrengo hilabetea bukatu aurretik hilabete bakoitzaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira. Behin data hau pasatzean, murrizpena ez da aplikatuko.

6.- Tarifa ordaintzeko, plaza eskatzerakoan ezinbestez eman behar da kontu korrontearen zenbakia, eta zenbaki horren bitartez udaleko zerbitzu ekonomikoek dagokion tarifa kobratuko dute.

7.- Jangela erabiltzeko zerbitzuaren eskaera, ordutegiaren aldaketa eta jangelan baja ematea, Udaletxean egin beharreko tramiteak dira. Berdin, medikuaren agiriak, Udaletxean entregatu behar izango dira, aipaturiko epeen barruan.

4. JABEKUNTZA ESKOLA. PRESTAKUNTZA IKASTAROAK.

2012-2013 ikasturteko zenbaketakoak mantentzea proposatzen da.

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordu bat: 1€

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK:

1. Matrikularen ordainketa matrikula egiteko epealdian egingo da, Udalaren Kontu Korrontean.

BIGARREN.- Alkateari tributuak arautzen dituen erabakiaren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

4.- HONDAKIN BILKETAKO ZERBITZU PUBLIKOA ESKAINTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA, ORDENANTZAREN 8.ERANSKINA, ALDATZEKO PROPOSAMENA. – Luis Intxauspe Alkateak ondorengo adierazi du: hurrengo puntua ere tasen inguruko moldaketa bat da, ordenantzaren moldaketa bat, lotuta dago hondakinen inguruko tasa sagardogileei aplikatzeko moduan; hainbat sagardogileak gehienak etxe partikularrak dira, bertan bizi da jendea, baina ostalaritza dira, baina ez dira jatetxe bat, urte osoan irekita dagoena, orduan hor geratu ziren gauza batzu, bere garaian hitzegin zirenak baina ordenantzen jaso gabe geratu zen zein trataera izango zuten, etxe partikularrarena soilik motz geratzen zen hondakin asko sortzen dituztenez lau hilabetetan baina jatetxeena ere ez, ez bait daude irekita urte osoan, orduan egin den planteamendua: urte erdia ordainduko dute edozein etxetan ordaintzen den bezala eta urte erdiz jatetxe bezala.

Kontu-hartzaitzaren teknikariak 2013ko martxoaren 13an aurkeztu duen txosten-proposamena aztertu da.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 14 (BILDU, 3 EAJ-PNV ETA 3 EUSKAL SOZIALISTAK).
- * Abstentzioak: 1 (H1!).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1. Hondakin Bilketako Zerbitzu publikoa eskaini egiteagatik ordaindu beharreko Tasa, ordenantzaren 8. eranskina aldatzea. Aldaketa da tarifa berriak onartzea eta tarifak aplikatzeko arauak berriak onartzea

A) Ordenantzaren 8. eranskinean onartutako tarifei gehitzea tarifa berri hauek

| MEREKATAL ESTABLEZIMENDUAK | | | | | 2013 tarifa €/seihilekoa |
|----------------------------|------------------|---------------------|------------------|-----------------|-----------------------------|
| <i>Asteko zerbitzua</i> | | | | | |
| <i>Zerbitzua</i> | <i>Organikoa</i> | <i>Ontzi arinak</i> | <i>Pap/kar t</i> | <i>Errefusa</i> | <i>Arrunta €</i> |
| Sagardotegiak | 3 | 2 | 1 | 1 | 96,85 |

| JARDUERA IBILTARIENTZAT, | | 2013 tarifa |
|---|----------------|----------------------------|
| <i>Eguneko zerbitzua</i> | | |
| Kontuan hartuko da zenbateko finko bat eta eguneko zenbatekoa | Kuota finkoa € | kuota aldagaia (€/eguneko) |
| Sortzaile txikia | 20 | 1 |
| Sortzaile handia | 40 | 2 |

B) Ordenantzaren 8. eranskinaren tarifak aplikatzeko arauen inguruan, hiru arau berriak onartzea:

6. Autokonposta: Pertsona batek bere jabetasuneko etxebizitza batean autokonposta tarifa alta emanda badauka, eta Hernanin bigarren etxebizitza badauka, autokonpostaren tarifa ere aplikatuko da bigarren etxebizitza honetan. Beti ere frogatzen badu (eta atez ateko zerbitzuak baieztatzen badu) hondakin organikoak ez direla biltzen pertsona horrek duen bigarren etxebizitzan.

7. Sagardotegien inguruan sagardotegia kokatuta dagoen eraikinean etxebizitza ere badago, etxebizitzak bere tarifa propio izango du eta ez da sagardotegiaren tarifarekin konpentsatuko du. Bi zerbitzu desberdinak dira.

8. Jarduera ibiltarientzat onartutako tarifak autolikidazioen bidez ordainduko dira, bide publikoa okupatzeagatiko lizentzia emakidarekin batera. Horretarako, Ingurumen eta Errenta Zerbitzuak elkar lanak egingo dituzte tasa hau gehi bide okupazioaren tasa biak batera ordaintzeko.

2.- Aurreko erabakia jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, izan ditzakeen erreklamazio eta oharrak jasotzeko.

3.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, erabaki berri bat hartu beharrik gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta inolako erreklamazio eta oharririk egin ez baldin bada.

5.- TELEFONIA MUGIKORREKO ZERBITZUAK USTIATZEN DITUZTEN ENPRESEN ALDEKO ERABILERA PRIBATUA EDO JABARI PUBLIKOAREN USTIAPEN BEREZIAGATIK TASAREN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA: 4. ART., SUBJEKTU PASIBO. – Luis Intxauspe Alkateak ondorengo adierazi du: hurrengo puntun ere ordenantza fiskalen aldaketa proposatzen da, telefonia mugikorraren kontuarekin arazo bat dagoelako, hau gainera epaitegietan egon da eta Udalaren kontrako bi epai baditugu eta da nori kobratu kableatua, gure kale eta bideetan telefonia mugikorraren kableak pasatzen dira eta nor den jabea, zeren eta denek erabiltzen dute kableatu bera, bai Movistar, bai Vodafone; zaila denez zehaztea, hor proposatzen da moldaketa bat egitea ordenantzan hori argitzeko.

Kontu-hartzaitzaren teknikariak 2013ko martxoaren 13an aurkeztu duen txosten-proposamena aztertu da.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 14 (BILDU, 3 EAJ-PNV ETA 3 EUSKAL SOZIALISTAK).
- * Abstentzioak: 1 (H1!).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Telefonia Mugikorreko zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen aldeko erabilera pribatua edo jabari publikoaren ustiapen bereziagatik tasaren Ordenantza fiskala 4. artikuluan aldatzea, urtarrilaren 1etik ondorioekin. Testua hau onartzeko proposatzen dut:

4. Artikulua. Subjektu pasiboak

1. Tasen subjektu pasiboak dira telefono mugikorraren zerbitzuak (herritar guztiei edo horietatik talde garrantzitsu bati) ematen dituzten enpresak edo zerbitzu-emaileak, berorietara heltzeko eta konektatzeko eskubidedunak badira.

2. Udal barrutian emaniko zerbitzua joko da Udalaren toki publikoko lurzorua, lurrazpia edo airearen aprobetxamenduaren baitan ematen diren edo harekin zerikusia duten zerbitzu guztiak.

2.- Aurreko erabakia jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, izan ditzakeen erreklamazio eta oharrak jasotzeko.

3.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, erabaki berri bat hartu beharrik gabe, jendaurrean jartzeko arauzko epea igaro eta inolako erreklamazio eta oharririk egin ez baldin bada.

4.- Alkateari tributuak arautzen dituen erabakiaren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

6.- (HI) SG.05 (SAGASTIALDE) SEKTOREKO PLAN PARTZIALAREN BEHIN BETIKO ONARPENA, URKILLA, S.L.K AURKEZTUTA. - Luis Intxauspe Alkateak ondorengo adierazi du: bere garaian hasierako onarpenera eman zitzaion, jende aurrean egon da proiektu hori, ez da inongo alegaziorik egon.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko otsailaren 8an egindako bileran hasierako onarpenera eman zion Sagastialde (HI)SG.05 Sektoreren Plan Partzialari. Plan hori ZMZ Asociados, S.L.P arkitektoek eta Jose M. Abad Urruzola abokatuak idatzia da, eta URKILLA, S.L.-k aurkeztua.

Espedientea 20 egunetz jende aurrean ikusgai egon da, 2013ko otsailaren 19ko GAOn argitaratuko iragarkiaren bidez.

Jende aurrean ikusgai egon den bitartean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Sustatzaileak dokumentazio osagarria aurkeztu du, hasierako onarpen erabakian eskatu zitzaiona betez.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2013ko martxoaren 18an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

Lehena.- URKILLA, S.L.-k aurkeztutako Sagastialde (HI)SG.05 Sektoreren Plan Partziala behin betiko onartzea.

Bigarrena.- Behin betiko onartutako agiriaren kopia Gipuzkoako Foru Aldundiaren Hirigintza Plangintzako erregistroari bidaltzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau GAOn eta Gipuzkoan zabalkunde handieneko egunkarian edo egunkarietan argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 89.5 artikuluan jasota datorrena betetze aldera.

7.- HERNANIKO SU-5.1 ETA SU-5.4 (TXANTXILLA) SEKTOREETAKO 2. FASEKO URBANIZAZIO-LANEN HARRERAKO ESKAERA, UTE TXANTXILAK AURKEZTUA. - Aztertu da UTE TXANTXILAK egindako eskaera Hernaniko SU-5.1 eta SU-5.4 (Txantxilla) sektoreetako 2. faseko urbanizazio-lanak udalak jasotzeko.

Aztertu dira udal aparejadoreak eta Ur eta Argi zerbitzuburuak egindako txostenak.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2013ko otsailaren 18an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- SU-5.1 eta SU-5.4 (Txantxilla) sektoreetako 2. faseko urbanizazio lanak jasotzea.
- 2.- Enpresak urbanizazio lanak bermatzeko jarritako abala itzultzea. (310.205,44 eurokoa)
- 3.- Ondare sailari akordio honen berri ematea.
- 4.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordezkari akordio hau formalizatzeko beharrezko diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

8.- HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN OSAGARRI DIREN UDAL ORDENANTZEN I.LIBURUAREN HASIERAKO ONARPENA. – Luis Intxauspe Alkateak ondorengo adierazi du: Hirigintza planeamendu eta antolamendua zehazteko eta arautzeko ordenantza diferenteak planteatzen dira, urbanizazio ordenantzak, establezimenduen inguruan, lokalak etxe biurtzeko ordenantzak,... ordenantza diferenteetan konkretatzen da arautegi guzti hori eta lanketa hori Udalak bi tomatan edo liburutan lantzen ari da, hemen planteatzen dena da lehenengo liburu hori egina dago, ordenantza horiek zehaztuta daude, hasierako onarpena ematea da, eta jendaurrean jartzea aztertzeke eta ikusteko, alegazioak eta ekarpenak egiteko.

Estefanía Morcillo zinegotziak ondorengo adierazi du: guk, Hirigintza Batzordean esan nuen moduan, abstenitu egingo gara alegatzeko eskubidea izateko, hala egitea erabakiz gero.

Hernaniko Udalak 2011ko apirilaren 11n egindako osoko bilkuran Udal Hirigintza Planeamenduko Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina behin betiko onestea erabaki zuen.

Aipatutako planeamendu orokor horretan jasotzen den araudiak ez ditu arautzen tresna horren berezko hedadura eta izaeratik kanpo gelditzen diren gaiak, eta indarreko hirigintza-legeriak (Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 60.2, 75 eta 99 artikulua) aurreikusten du Udal Ordenantzen bitartez arautu beharko direla horiek zehazki.

Testuinguru honetan, Hernaniko Udalak beharrezko eta egoki ikusi du Udal Ordenantza Multzo hau idazteari ekitea, eta horren helburua hainbat arlotako gaiak arautzea izango da (batzuk jada aurrez aztertuak ditu Udalak, eta beste batzuk berriak dira), udalerrian indarrean dagoen planeamendu orokorraren eskaerari erantzunez, Hirigintza Arau Orokorretan nola Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bateginaren Garapenerako Planeamendu Programan berariaz aurreikusita dagoen moduan.

Ordenantza multzoaren baterabiltze lanak honako hau dakar:

A - 1996ko Arau Subsidiarioetan barneratutako Ordenantzek jada araututako gaiak berrikustea eta hobetzea.

B - 2008 eta 2010 artean onetsitako lau Ordenantzen edukia berrikustea eta hobetzea.

C.- Orain arte aztertu ez diren beste gai batzuk arautuko dituzten zehaztapen berriak prestatzea.

Lehen fasean Udal Ordenantza Multzoaren I. Liburua izenaz izendatu duguna idatzi da. Liburu horrek, hain zuzen ere, lehendik arauak eta ordenantza arautzaileak badituzten eta lehentasunez horien berrikuspena eta hobekuntza egitea eskatzen duten gaiei buruzko testuak bilduko ditu.

Aztertu da espedientean jasota dagoen txosten juridikoa.

Kontuan hartu dira jarraian aipatzen den araudiak ezartzen duena:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 60.2, 75 eta 99 artikulua eta bederatzigarren Xedapen Gehigarriaren 4. eta 5. atalak.
- Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.1 a), 22.2 d) eta 47.1, 49, 70.2 eta 84.1 a) artikulua.
- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 51 eta 52.1 artikulua.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2013ko martxoaren 18an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- * Aldeko botoak: 8 (BILDU).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.
- * Abstentzioak: 7 (3 EAJ-PNV, 3 EUSKAL SOZIA-LISTAK ETA 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

LEHENENGOA.- Hastapenez onartzea hirigintza antolamenduaren osagarri den Udal Ordenantza Multzoaren I. Liburua. Hona hemen liburuaren edukia:

- Atariko titulua (0): Xedapen Orokorrak.
- Lehen titulua (I): Eraikuntza-ordenantzak.
- Bigarren titulua (II): Hirigintza-ordenantzak.
- Hirugarren titulua (III): Etxebizitza-eraikinetako lokal jakin batzuetan etxebizitza-erabilera nola ezarri behar den arautzen duen ordenantza.
- Laugarren titulua (IV): Ostalaritzako eta aisialdiko jarduerak nola ezarri behar diren arautzen duen ordenantza.
- Bosgarren titulua (V): Hirigintza-planeamenduak finkatutako etxebizitzetan, eraikinetan eta etxebizitzetarako lur-zatietan ibilerratasuna sustatzen duen ordenantza.
- Seigarren titulua (VI): Udal Etxebizitza Babestua arautzen duen ordenantza.

BIGARRENA.- Espedientea jende aurrean ikusgai jartzeko eta interesdunei entzuteko 30 eguneko epea irekitzea, nahi duen orok erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzan. Epe hori hastapenez onartzeko erabakiaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

HIRUGARRENA.- Epe horretan inork erreklamazio edo iradokizunik aurkezten ez badu erabaki hau behin betiko hartutzat joko da eta alkate-lehendakariak erabakia argitaratu eta gauzatzeko ahalmena izango du.

9.- GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE-AGINTARITZA-N SARTZEA: ESTATUTUAK ONARTU ETA ORDEZKARIA IZANDATZEA.

- Luis Intxauspe Alkateak ondorengo adierazi du: Bere garaian, martxoko plenoan, Udaletxe honek erabaki zuen Gipuzkoako Garraio Agintzaritzan Udalak ere parte hartzea, lehen Garraio Agintzaritza horretan enpresa handienek parte hartzen zuten, Aldundiak eta gero enpresa handi horiek, Gipuzkoako linea handiak, Donostibus edo Garaia, linea handi horiek dituztenek, orain planteatzen dena da edo Aldundiak planteatu duena da hainbat herri handienei eta autobus linea propioa dugunoi bertan parte hartzeko aukera hori. Martxoan Udaletxean erabaki genuen parte hartzea, Lurraldebus txartela eta Mugi txartelekin gaur egun ditugun abantaila horiek eta orain planteatzen dena da estatutuak onartu behar ditugu eta ordezkariak izendatu behar ditugu, Udalaren ordezkariak Agintaritza horretan. Estatutuak begiratu ditugu, badituzue, eta planteatzen da ordezkari bezala ni neu izendatzea eta ordezkaria Asier San Emeterio zinegotzia. Orduan, bere hortan biak planteatuko ditugu, bai estatutuena eta bai izendapenarena bozketa berdinean.

Iñaki Arratibel zinegotziak ondorengo adierazi du: Nik bi bozketa egitea planteatuko nuke, bat estatutuena eta bestea izendapenena.

Luis Intxauspe: Ados.

Udalak 2012ko martxoaren 6an emandako ebazpen bidez erabaki zuen Hernaniko Udala Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzan sartzea.

Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzaren Batzar Nagusiak 2012ko martxoaren 26an egindako bileran erabaki zuen eskaera hori bideratzea eta Hernaniko Udala Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzan sartzea.

Udalak 2012ko martxoaren 6an hartutako erabaki bidez hitzarmen hau onartu zuen: "Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Hernaniko Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena", Hernaniko herri barneko garraio publikoa txartel bakarrean integratze aldera.

Udalak 2013ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakiaren bidez hitzarmen hau onartu zuen: "Gipuzkoako garraio publiko kolektiboaren tarifak bateratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena".

Udalak 2013ko otsailaren 26an hartutako erabaki bidez hitzarmen hau onartu zuen: "Autobusa Mikrobusa SL"k ematen duen Hernaniko bidaiarien garraio publiko kolektiboaren zerbitzuan tarifak bateratzeko sistema ezartzeko lankidetzaren hitzarmena.

Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzaren estatutuak aztertu dira eta Kontratazio eta Ondare teknikariak egindako txostena ikusi da, idazkariak adostua.

Aztertu da Zerbitzu Publiko eta Merkataritza Batzordeak 2013ko otsailaren 18an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketak egin ditu. Hona emaitzak:

Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzaren estatutuak aho batez onartzea erabaki da.

Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzan Hernaniko Udalaren ordezkari gisa Luis Intxauspe Arozamena (titular) eta Asier San Emeterio Otegui (ordezko) izendatzea:

- * Aldeko botoak: 11 (BILDU ETA 3 EAJ-PNV).
- * Abstentzioak: 4 (3 EUSKAL SOZIALISTAK ETA 1 H1!).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- 1.- 2012ko martxoaren 6an Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzan sartzeari buruz hartutako erabakia berrestea.
- 2.- Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzaren estatutuak onartzea.
- 3.- Gipuzkoako garraioaren lurralde-agintaritzan Hernaniko Udalaren ordezkari gisa aritzeko ordezkariak izendatzea, ordezkariak hauek dira:

Titularra: Luis Intxauspe Arozamena.
Ordezkoa: Asier San Emeterio Otegui..

10.- TXILLIDA-LEKU BERRIZ IREKITZEAREN ALDEKO MOZIOA. - - Txillida-Leku museoa itxita dago 2011ko urtarrilaz geroztik.

Txillidatarrek eta administrazioek –Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundia- garai hartan izandako elkarrizketek huts egin zuten eta, beraz, azkenean, ez zen museoa berriz irekitzeko akordiorik lortu.

Duela astebete museoa berrirekitzeko negoziazioak berrabiaraziko ote ziren berriekin esnatu ginen. Beraz, Hernanirentzako aukera paregabea dela jotzen dugunez, Eta munduko edozein hiriburua Eduardo Txillidaren garrantzia duen nazioarteko artista garaikide baten museoa bere lurraldean izaten ahaleginduko zela iruditzen zaigunez,

Hernaniko Udalarari hau eskatzen diogu:

- 1.- Ez dezala gal Txillida-Leku berriz zabaltzeko helburuz hasiko diren negoziaketetan aktiboki parte hartzeko aukera hori.
- 2.- Txillida-Lekuren etorkizuneko administrazio forman parte har dezala eta, aldi berean, herria sustatzeko erabil dezala.

MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DA.

Estefanía Morcillo zinegotziak ondorengoa adierazi du: Badirudi negoziazioak berriz hasiko direla, eta badakigu gauza zaila izango dela, aldeaz aurretik daukagun eskarmentuarengatik; dirudienez Txillidatarrek ez zeuden museoa kudeatzeko inolako erakunderik sortzeko prest, kudeaketa pribatuarekin jarraitun ahi zuten, baina, hala ere, inolako aukerarik baldin badago, udalarari eskatzen diogu ahal den neurrian parte har dezala eta, esku hartzerik baldin badu, gure ustez hori funtsezkoa izango da Hernanirentzat, kultura eta turismoko aktibo gisa erabili ahal izateko.

11.- LEKUKO ADMINISTRAZIO ERREFORMA PROIEKTUAREN MOZIOA. .- Luis Intxauspe Alkateak ondorengoa adierazi du: Mozio orijinala alderdi sozialistak aurkeztu du, gerora ekarpen diferentek egin ditugu beste alderdietatik ere eta adostutako testu moldaketa bat egin dugu.

Orain dela urtebete, Espainiako PP alderdiaren gobernuak toki-erakundearen funtzionamendua arautzen duten oinarri juridikoak aldatzeko asmoa zuela iragarri zuen. Azkenik, Gobernuak joan den otsailaren 15ean eman zion hasiera Toki-administrazioa arrazionalizatzeko eta iraunarazteko Legearen Lege-aurreproiektua izapidetzeari. Aurreproiektu hori, oro har, izen honekin da ezaguna: "Toki-administrazioa erreformatzeko Legea".

Udal-eremutik, beti eskatu izan da toki-finantziarioa eta Legea erreformatzea, Toki-erakundeek euren erantzukizuna ongi zehaztutako eskumenekin eta finantziario nahikoarekin bete ahal ditzaten. Hala ere, ez zaie Alkateen eta Udal Federazioen eta Elkarten eskari historikoei erantzun eta aurkeztu den proposamenak Udaletako berezko eskumenak herritarrengandik aldentzea dakar eta eskumenak eta baliabide finantzarioak, hau da, baliabide ekonomikoak, Autonomia Erkidegoei eskualdatzea dakar. Bestalde, "berezko ez diren" izeneko eskumenak zerbitzuen prestazioa ziurtatu ordez desagertu egingo dira beste Administrazio batek prestatuko ez dituelako. Azkenik, probintziako Diputaziora bideratuko diren zerbitzuak pribatizatu egin ahal izango dira eta horrek herritarrek ordaindu beharko dituzten tasak eta prezioak igotzea ekarriko du.

Denok dakigu baliabideen administrazioan zorrotasunez, soiltasunez eta eraginkortasunez jokatu behar dugula baina argudio horiek ezin dira, inondik ere ez, baliabide horiek kentzeko edo zerbitzu publikoak garestitzeko erabili.

Udalek eskaini behar dituzten gutxieneko zerbitzuak ziurtatu ordez arriskuan jartzen dira haiek. Ondorioz, kolokan daude 200.000 enplegu publiko, haien lana eta funtzioak pribatizatzeko arriskuan daudelako eta enpresa pribatuetara pasatuko direlako edo, okerreanean, desegin eta desagertu egingo direlako. Oraindik gauzak ez daude argi, ez edukian, ez prozeduran ezta norainokoan ere. Gobernuak proposamen hori idatzi duenean udal egiturak Estatuko egituran betetzen duen benetako papera zein denaren ezjakintasunetik idatzi du. Zerbitzu publikoak ezin dira irizpide ekonomikoak aintzat hartuta bakarrik balioetsi eta, lehentasunez, erabiltzaileei, hau da, herritarrei, eskaintzen dien onura soziala da balioetsi behar dena.

Orain arte esan den guztiari, Euskadin sortzen den ziurtasunik eza eta segurtasunik eza gehitu behar zaio, Espainiako Konstituzioak, bere lehenengo Xedapen Gehigarrian, Euskal Autonomia Erkidegoari erregimen berezia aitortzen diolako. Halaber, aintzat hartu behar dira Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 3, 24.2 eta 37. artikulua, non honako hau jasotzen baita: "Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa Herrialde Historikoetako bakoitzak, beti ere berorren baitan, autogobernuko bere antolaketa eta instituzio propioak antolatuko ditu eta funtzionatzeko beharrezko arauak emango ditu, lurralde mailako antolaketarako Legean bertan jasotako arauak aplikagarriak izango ez zaizkiolarik". Horri Foru Erregimenaren berezitasuna gehitu behar diogu; horren arabera, Foru Aldundiak ez dira Toki erakundeak eta ezin dira Espainiako gainerako Lurralde Diputazioen pare jarri; ezin dira haiekin parekatu eta, ondorioz, Foru Aldundiek ezin dituzte beren gain hartu tokiko erreforma honekin pasa nahi dizkieten eskumenak.

Hortaz, Udal autonomia eta udalgintza defendatzeaz gain, herritarrengandik gertuen dauden erakundeen lana defendatzen dugu, haien beharretan, arazoetan eta errebindikazioetan inplikaturik daudelako. Modu berean, Euskal Autogobernua errebindikatzen dugu eta gure erakundeak eta gure lurraldea antolatzeko Espainiako Konstituzioak eta Autonomi Estatutuak eman diguten ahalmena errebindikatzen dugu.

Zentzu horretan, gure iritziz ezinbestekoa da EUDELen eginbeharra eta proposatutako Legeak izan ditzakeen ondorioak eta Euskadin izan dezakeen eragina berak aztertu behar duela uste dugu.

Horregatik, Udal honek Espainiako Gobernuak hasi duen erreformaren aurrean bere jarrera azaldu behar duela uste dugu. Bestetik, Udalak, bere eskumenak erabiliz, bigarren eskari bat ere egin behar duela pentsatzen dugu eta, hortaz, Eusko Jaurlaritzari eskatu behar zaio Eusko Legebiltzarrera Euskadiko Udal Legearen proiektu bat eraman dezala. Lege horretan udal eskumenak zehaztu ditzala eta haiek gauzatzeko finantziario nahikoa bermatu dezala eskatu behar zaio.

Azken finean, Konstituzioak eta Europako Gutunak gure toki-autonomia bermatzen dute eta Estatu deszentralizatu baten demokrazia, kohesioa eta gizarte- eta lurralde-egituraketa oinarritzeko printzipioetako bat da. Guztion artean, herritarrei zerbitzu gehiago eta hobeagoak eskaintzeko gai den toki-eredu bat diseinatzen saiatu gara eta parte hartzearen, integrazioaren eta elkarbizitzaren eredu diren Toki-gobernuak eratu ditugu.

Esandakoagatik guztiarengatik, Udal Talde Sozialistak honako mozioa aurkezten du.

MOZIOA

- 1.- Udaleko osoko bilkurak toki-autonomia berresten du eta, halaber, Udalek aukera berdintasunaren alorrean, demokrazian eta kohesio sozialean duten paper garrantzitsua nabarmentzen du, izan ere, aipatutako ezaugarriei esker egituratu delako lurraldea eta oinarritzeko zerbitzuak eta gertukoak eskaini izan direlako. Halaber, Udalei eta herritarrei, eta bereziki udalerritxikiagoei, adierazi nahi die gure babesa eta aitortza dutela gizarte osorako lurraldea bizirik mantentzeko egiten duten lanarengatik.
- 2.- Udaleko osoko bilkurak Espainiako Gobernuari eskatzen dio toki administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasun legearen aurreproiektua erretiratu dezala eta, halaber, elkarrizketa-prozesu bat ireki dezala Diputatuen kongresuko talde parlamentario guztiekin,

FEMP, EUDEL eta bestelako udalen federakuntza eta elkarteekin, toki esparrua eta herritarren eskubide sozialak arautzen duten legeen erreformari ekiteko.

- 3.- Udaleko osoko bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, gure eskumenen babesean, bere lege-egutegian jaso dezala Euskadiko Udalen Lege-proiektua bidaltzea erakunde honetara. Lege-proiektuak, besteak beste, honakoak jasoko ditu: udal eskumenen zehaztapena, eskumenok aurrera ateratzeko behar den finantzaketa bermatzea eta herritarren eskubide sozialak jasotzea.
- 4.- Akordio honen berri emango zaie Espainiako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari, Estatuko Kontseiluari, Diputatuen Kongresuari, Senatuari eta, eragindako entitate publiko guztiei.

MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DA.

EGUNEKO AZTERGAIEN ZERRENDATIK KANPO, ETA GAIA PRESAZKOTZAT JO ONDOREN, PUNTU HAU AZTERTZEA ERABAKI DA AHO BATEZ:

12.- LOMCEREN INGURUKO MOZIOA. - Ikusita espainiako Gobernuaren hezkuntza ministeritzak aurre jarraitzen duela LOMCE delako lege aurreproiektuaren aldebarreko inposaketaren bidez.

Ikusita ez duela egiazko eztabaida Garate Hezkuntzako eragileekin, egindako proposamenei eta gizarte aldarrikapenei muzin eginez.

Ikusita ondorengo atal atzerakoiak inposatu nahi dituela, hots:

- * Ratioen igoera, masifikazioa geletan (bost ikasle gehiago gelako).
- * Ikasleen segregazio goiztiarra, 3. DBHN.
- * Ikasleen ibilbidea errebalida-lehiaketa baztertzaila bihurtzea.
- * Sexuaren araberako segregazioa ekonomikoki sustatzea.
- * Hezkuntzaren eta ikasleen erabilera merkantilista bilatzea.
- * Ikastetxeak emaitza subjektiboen arabera publikoki klasifikatzea.
- * Gestio pribatua lehenestea ikastetxe publikoetan.
- * Agente organo unipertsonalak bultzatzea, bestelakoak ukatuz
- * Curriculumaren zentralizazio eta uniformizazioa sustatzea.
- * Euskal herriko curriculumaren garapena are gehiago murriztea.
- * Euskararen bazterketa inposatzea, behar duen lehentasuna ukatuz.
- * Erljio katolikoa berrezartzea gizarte anitz eta laikoan.
- * Murrizketa berrien bidez, hezkuntzako langile ororen lan baldintzak hondatzea, eskaintzen dugun kalitatea zapuztuz.

Hori guztia ilusita, LOMCEren inposaketaren kontrako mozioa aurkezten diogu Udaletxe honi herri honetako ondorengo hezkuntza eragileok: sinaduretan agertzen diren ikastetxeak eta OOGak edota Estola Kontseiluak.

Ondorioz, honakoa eskatu nahi dugu:

- Mozioa onartzea.
- Plenoko akta Espainiako, Nafarroako eta Erkidegoko gobernu-erakundeetara bideratzea.
- Hernaniko herritarrek honrren inguruan izando diren ekintzetan parte artesa bultzatzea.

MOZIOA AHO BATEZ ONARTU DA.

13.- HERNANIKO BARATZA PARKEA SORTZEKO HERNANIKO UDALA ETA EKOGINEAREN ARTEKO HITZARMEN PROPOSAMENA. – Luis Intxauspe Alkateak ondorengoa adierazi du: Hernaniko baratza publikoen parkea bideratzeko Hernaniko Udalak eta Kutxa Ekoguneak hitzarmen bat sinatuko dugu, hitzarmen hori plenoak onartu behar duenez eta ziurrenik sinaketa hurrengo plenoa aurretik egingo dugunez gaurkora ekartzea planteatu dugu. Berez hitzarmena zortzi urtetarako da, Ekoguneak finantziazioan parte hartzen du, azpiegitura eta ikastaroak eskaintzen ditu nekazaritza ekologikoaren inguruan eta zerbitzu batzuk eta jarraipen bat eskaintzen die bertan baratza bat edukiko dutenei.

Aztertu da Arteaga Fundazioak sortutako Baratza Parke sarean partehartzeko proposamena eta horretarako Udalak Arteaga Fundazioarekin sinatu behar duen hitzarmena.

Aztertu da udal ingumeneko teknikariak eta udal arkitektoak egindako txostena.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen Batzordeak 2013ko martxoaren 25ean emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Hernaniko baratza parkea sortzeko Hernaniko Udalak eta Arteaga Fundazioaren arteko hitzarmena onartzea.
- 2.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordezkari akordio hau formalizatzeko beharrezko diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko ahalmena ematea.



C:\Documents and Settings\lourdes-a\Es

14.- ERREGU ETA GALDERAK. Antxon Garcia Nadal Hernaniko Udaleko Kontu-hartzailearen erretiroaren harira eginiko adierazpenak:

Luis Intxauspe:

Udal Gobernu bezala eta plenoa osatzen dugun alderdi eta zinegotzi guztien izenean eskerrak emateko Antxon Garcia Nadali, gure urte askotako Hernaniko Udaletxeko kontu-hartzaile izan den eta zorionez azkenean Rajoik aurrejubilatzeke aukera emango diolako eta gaurkoa duelako bere azken plenoa; eskerrak eman denen izenean, orain gauden eta urteetan hemen aritutako hainbat ordezkari politikoren izenean, eskerrak eman egindako lan guzti horregatik, emandako laguntza guzti horregatik eta ondo aprobetxatu jubilazioa, ondo merezita duzu eta.

Andoni Amonarraiz:

Gaur goizeko Pertsonal Batzordean saiatu gara konbentzitzen erretirorik ez hartzeko, baina azkenean amore eman eta prozedurak aurrera egin dezala esan dugu. Luixek esan duen moduan, guk ere, garai berri honetan oso zoriontsu izan zaitezela opa dizugu eta EAJ alderditik eskerrak eman nahi dizkizugu, guk biok behinik behin, udal honetan daramatzagun hamar urte hauetan zuregandik jaso dugun laguntza handiarengatik, bai talde gisa eta bai pertsona gisa ere, ziur baikaude ezin izango genuela gure zinegotzi zereginak bete ditugun moduan bete, hobeto ala okerrago, baina beti ere zuregandik jaso dugun laguntzarekin. Mila Esker.

Estefanía Morcillo:

Bada, nik ezer gutxi gainera dezaket; talde sozialistakook, orain gauden hiru taldekideak eta aurretik izandako beste guztiak adierazi nahi dugu, nik hamar urte daramatzat, baina hemendik pasa izan diren guztientzat balio duela esango nuke, guretzat erreferente bat izan zarela, laguntza bat, eta benetan lan bikaina egin duzula urte hauetan guztietan. Munduko zorte eta zorion guztia opa dizugu hastera zoazen aldi berri honetan, zorionekoa zu, erretiratzeko aukera baduzulako, besteok auskalo, disfruta dezazula garai hau eta gure desiorik onenak, mila esker.

Iñaki Arratibel:

Nireak egiten ditut besteek esandako hitz guztiak, zorionak eta disfrutatu.

Beste aztergairik ez dagoenez bilera 19:32 orduetan bukatu da, eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatzen dut.